



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

## PRENTSARAKO OHARRA

# ALDUNDIAK “URTEA BUKATU AURRETIK” AKTIBAUKO DAU BIZKAIKO BARDINTASUN SAREA

- EH Bilduk galdetuta, Teresa Laespada Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasuneko diputatuak “hilebete honen bukaeran edo urriaren hasieran” onetsiko dan Foru Dekretuaren zirriborroa aurkeztuko dala baieztu dau.
- Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Bardintasunerako Lurralde Sarea osatzeko arauzko testuak EUDELen eta hiru udalen alegazioak jaso ditu, eta “ia danak” onartuko dira.
- Enplegu, Gizarte Inklusino eta Berdintasunerako Batzordeak aho batez onetsi dau LGTBI kolektiboaren eskubideen aldeko arauz besteko proposamen bat.

*(Bilbon, 2020ko irailaren 9an).* Teresa Laespada Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasuneko diputatuak, EH Bilduk eskatuta Bizkaiko Batzar Nagusietan egin dauen agerraldian, “urtea bukatu aurretik” Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Bardintasunerako Lurralde Sarea operatibo egongo dala baieztu dau. Pandemiak sarearen osaketea atzeratu egin dauela autortu dau diputatuak. 2018an onetsi zan Emakumeen eta Gizonen Bardintasunerako Foru Arauan aurreikusi zan sarea sortzea.

Laespadak baieztu dauenez, sarearen osaketea arautu behar dauden testuaren zirriborroa garagarriean aurkeztu zan. Dokumentu hori prozesu partaidearen ostean egin zan, Oreka Sarearen laguntza teknikoagaz. Urria eta azaroa artean hainbat alkarrizketa eta laneko saio egin ziran saileko bardintasun arduradunakaz eta Lurraldeko udaletako teknikariakaz eta arduradun politikoakaz. Kontraste prozesu horren ostean, “bakarrik” hiru udalek (Galdakao, Arrigorriaga eta Munitibar) eta Eudelek aurkeztu ditue dokumentuaren aurreko alegazioak, eta “ia guztiak” jasoko dira Aldundiak “hilebete honen bukaeran edo urriaren hasieran” onestea aurreikusten dauen dekretuan.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

Arantza Urkaregi EH Bilduko batzordekideak hobekuntzarako prozesuan udalek “hain partaidetza txikia” izatea penagarria dala esan dau, foru dekretuaren zirriborroaren aurrean aurkeztu diran alegazioak kontuan izanda, eta “inplikazio handiagoa” eskatu dau. Diputatuak onartu dau erantzuna “txikia” izan dala, “Bizkaiko udal guztiek” Aldundiaren proposamena garagarrilaren 14an jaso ebela azpimarratu arren. Sarea martxan jarrean udalak gehiago inplikauko dirala uste dau Aldundiak.

## AURRERAPAUSSOA LGTBI KOLEKTIBOAREN ESKUBIDEEN ALDE

Saio berean, LGTBI pertsonen eskubideetan aurrerapausoa emoten dauen “akordio garrantzitsua” gauzatu da. Batzarretako lau talde (Euzko Abertzaleak, Euskal Sozialistak, EH Bildu eta Elkarrekin Bizkaia) ados jarri dira gaur Enplegu, Gizarte Inklusio eta berdintasunerako Batzordean, akordioa lortzeko, eta Talde Bereziak (PP) be bat egin dau kolektibo horren eskubideen aldeko burrukan. Talde horreek euren testuak aurkeztu ebezan eztabaidatzeko, baina azkenean baztertu egin dira, 7 puntu honeek jasoten dituan arauz besteko proposamen transakzionala aho batez onesteko:

1. Bizkaiko Batzar Nagusiek Foru Aldundiari eskatu egiten diote, gaineratiko euskal erakundeekin elkarlanean, LGTBI pertsonen aurkako indarkeriaren aurrean, bereziki Covid-19aren pandemiak ondorioztaturiko errealitate berria kontuan hartuz, erakundeen koordinazio, arreta eta erantzun publikorako protokoloak diseinatu eta abian jar ditzala.

2. Bizkaiko Batzar Nagusiek Foru Aldundiari eskatu egiten diote, sentsibilizazio-kanpainak egiten jarrai dezala, Covid-19aren krisialdiaren testuinguru sozialera egokituta, epe labur, ertain eta luzean, gazteei arreta berezia eskainiz, sexu-genero dikotomiari, heteronormatibitateari eta eremu desberdinetan LGTBI pertsonenganako indarkeriaren eta diskriminazioaren adierazpen eta forma anitzei buruzko kontzientzia kritikoa hartzea errazteko.

3. Bizkaiko Batzar Nagusiek Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen diote, Sail ezberdinen parte-hartzearekin, neurri berriak diseinatu eta har ditzala, LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko hainbat eremutan garatutako politika publikoetan. Neurri horiek, besteak beste, helburu hauek izan beharko lituzkete:

- LGTBI pertsonak, adinekoen egoitzetan, beren sexu- eta genero-aukera askatasunez bizi ahal izatea, diskriminaziorik gabe.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

- Transexualitate-egoeran dauden haur eta nerabeak adin txikikori zuzendutako politiketan barneratuak egotea.
- Emakume transexualentzako prestakuntza- eta espezializazio-programak sustatzea, pairatzen dituzten langabezia-tasa handiak saihesteko.
- Foru Liburutegiak, homosexualitateari, bisexualitateari, transexualitateari eta intersexualitateari loturiko funts bibliografiko espezifikoak eskuratzea.

4. Bizkaiko Batzar Nagusiek Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen diote aniztasun afektibo-sexuala eta familia-aniztasuna bultzatzeko proiektuen sustapena berma dezala.

5. Bizkaiko Batzar Nagusiek Bizkaiko Foru Aldundiari, eta euskal erakunde orori, eskatzen diote erakunde publikoetatik bultzatu dezatela emakume bisexualei, lesbianeiei eta transexualei lotutako estereotipoak desagerraraztea.

6. Bizkaiko Batzar Nagusiek Erregistro Zibilari eskatzen diote ken dezala emakume-bikoteekiko diskriminatzailea den betekizuna, bikote horiek ezkontuta egon behar baitute jaioberriak erregistratzeko.

7. Bizkaiko Batzar Nagusiek Eusko Jaurlaritzari eskatzen diote LGTBI Euskal Lege Integrala egin dezala eta LGTBI Euskal Kontseilua sor dezala, gizarte-eragileen parte-hartze aktiborako gune gisa.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

## NOTA DE PRENSA

# LA DIPUTACIÓN ACTIVARÁ LA RED DE IGUALDAD DE BIZKAIA “ANTES DE QUE FINALICE EL AÑO”

- A preguntas de EH Bildu, la diputada de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, Teresa Laespada, confirma que se ha presentado ya un borrador de Decreto foral que será aprobado “a finales de este mes o principios de octubre”.
- El texto normativo para crear la Red Territorial para la Igualdad de Hombres y Mujeres de Bizkaia ha recibido alegaciones de EUDEL y de tres ayuntamientos, que serán “casi todas” aceptadas.
- La Comisión de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, aprueba por unanimidad una proposición no de norma por los derechos del colectivo LGTBI.

*(Bilbao, a 9 de septiembre de 2020).* La Diputada foral de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, Teresa Laespada, ha confirmado hoy en una comparecencia en las Juntas Generales de Bizkaia solicitada por EH Bildu, que la Red Territorial para la Igualdad de Hombres y Mujeres de Bizkaia, estará operativa “antes de que finalice el año”. La diputada ha reconocido que la pandemia ha retrasado la implantación de esta red que estaba prevista ya en la Norma Foral para la Igualdad de Hombres y Mujeres aprobada en el año 2018.

Laespada ha confirmado que en el mes de julio se presentó el borrador del texto que debe regular la creación de esta red, un documento que fue elaborado tras realizar un proceso participativo con la asistencia técnica de la Red Oreka, que estableció entre octubre y noviembre una agenda de entrevistas y sesiones de trabajo con responsables de igualdad del departamento, y técnicas municipales y responsables políticos de ayuntamientos del Territorio. Tras este proceso de contraste “solo” tres ayuntamientos (Galdakao, Arrigorriaga y Munitibar) y Eudel han presentado alegaciones al documento, que serán “casi todas” recogidas en el decreto que la Diputación prevé aprobar “a finales de este mes o principios de octubre”.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

La apoderada de EH Bildu Arantza Urkaregi ha lamentado la “muy pequeña” participación de los ayuntamientos en el proceso de mejora teniendo en cuenta las alegaciones presentadas al borrador de decreto foral y ha pedido “mayor implicación”. La diputada ha coincidido en que la respuesta ha sido “pequeña” pese a insistir en que “todos los ayuntamientos de Bizkaia” recibieron la propuesta foral el 14 de julio. Desde la Diputación esperan que los municipios se impliquen más una vez que la red eche a andar.

## AVANCE POR LOS DERECHOS DEL COLECTIVO LGTBI

En la misma sesión se ha materializado un “acuerdo importante” que avanza en los derechos de las personas LGTBI. Cuatro grupos junteros (Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos, EH Bildu y Elkarrekin Bizkaia) se han unido hoy en la comisión de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, para alcanzar un acuerdo, al que se ha juntado también el grupo Mixto (PP), en la lucha por los derechos de este colectivo. Estas formaciones habían presentado sus propios textos para su debate, que han sido retirados para aprobar por unanimidad una proposición no de norma transaccional que incluye los siguientes 7 puntos:

1. Las Juntas Generales de Bizkaia instan a la Diputación de Bizkaia a diseñar y poner en marcha, en colaboración con el resto de instituciones vascas, protocolos de coordinación, atención y respuesta pública institucional ante la violencia contra las personas LGTBI, con especial atención a la nueva realidad que nos ha traído la pandemia del COVID-19.
2. Las Juntas Generales de Bizkaia instan a la Diputación de Bizkaia a continuar realizando campañas de sensibilización, adaptadas al contexto social de la crisis de la Covid-19, a corto, medio y largo plazo, con especial atención a la gente joven, para facilitar la toma de conciencia crítica sobre la dicotomía sexo-género, la heteronormatividad y las múltiples manifestaciones y formas de violencia y discriminación hacia las personas LGTBI en los diferentes ámbitos.
3. Las Juntas Generales de Bizkaia instan a la Diputación de Bizkaia a diseñar y adoptar, con la participación de los diferentes Departamentos, nuevas medidas encaminadas a garantizar los derechos de las personas LGTBI en las políticas públicas desarrolladas en los diferentes ámbitos. Medidas que, entre otras, deberían ir encaminadas a que:



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

- las personas LGTBI en residencias de personas mayores puedan vivir libremente, sin discriminación, su opción sexual y de género.
- las niñas, niños y adolescentes en situación de transexualidad se vean incluidas e incluidos en las políticas de infancia.
- se impulsen programas de formación y especialización dirigidos a las mujeres transexuales para evitar las altas tasas de desempleo que sufren.
- se dote a la Biblioteca Foral con fondos bibliográficos específicos relacionados con la homosexualidad, la bisexualidad, la transexualidad y la intersexualidad.

4. Las Juntas Generales de Bizkaia instan a la Diputación Foral de Bizkaia a garantizar el mantenimiento de los proyectos de impulso a la diversidad afectivo-sexual y la diversidad familiar.

5. Las Juntas Generales de Bizkaia instan a la Diputación Foral de Bizkaia, y al conjunto de instituciones vascas, a romper con los estereotipos que acompañan a las mujeres bisexuales, lesbianas y transexuales.

6. Las Juntas Generales de Bizkaia instan al Registro Civil a que suprima el requisito discriminatorio hacia las parejas de mujeres, que deben estar casadas para inscribir a las personas nacidas.

7. Las Juntas Generales de Bizkaia instan al Gobierno Vasco a la elaboración de una Ley Integral Vasca LGTBI y a la creación del Consejo Vasco LGTBI, como espacio para la participación activa de los agentes sociales.